

# Udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen udal Erregistroa arautzeko udal ordenantzaren aldaketa idatzi AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA bideratzeko iragarkia

Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak,– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra. Bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

*“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.”*

Oiartzungo Udalak Udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa bat sustatu nahi du, gaur egungoa egokitu eta eguneratzeko, udalaren beste Ordenantzekin bat etor dadin.

Ondorioz, 39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Oiartzungo Udalak erabaki du, “Udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroa” arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa onartu aurretik, aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritzi gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2019ko azaroaren 10a arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: [ekarpenak@oiartzun.eus](mailto:ekarpenak@oiartzun.eus).
- Udalaren Erregistro orokorrean aurkeztutako iradokizunen bidez (Doneztebe plaza, 1) edo erregistro elektronikoaren bitartez, [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus), ziurtagiri digitalaren bidez identifikatuta.

## **EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

Orain aldatu nahi den Ordenantza 2010eko irailaren 29 onartu zen eta 2010/10/11 datako GAOn argitaratu zen. Erregistroan izena emateko jarritako baldintzak ez datoz bat udal beste Ordenantza batean, Udal etxebizitza tasatuak arautzeko Ordenantzak (GAO 2012/04/03), udal etxebizitza tasatuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzekin.

**ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

Aldaketa aipatu bi arauen arteko bateraezintasunean oinarritzen da eta jarritako baldintza, erroldari dagokionez, bai etxebizitzaren esleipendun izateko bai eskatzaileen Erregistroan izena emateko, berdina izan behar du.

**ORDENANTZAREN HELBURUAK**

Erroldaren baldintza bateratzeaz gain etxe tasatuak era zabalenean esleitzeko aukera lehenetsi da, hau da, errolda baldintza modu malguenean jasotzearena.

**IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK**

Ez dago beste aukerarik ordenantzaren egokitzapena ordenantzaren aldaketaren bitartez soilik bidera litekelako.

Oiartzunen, 2019ko urria